

"PSIKOLOGIA ETA FAMILIA" ZERBITZUA



Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco



Psikologia Fakultatea
Oinarrizko Psikologia Prozesuak
eta Haien Garapena Saila



familia-psikologia unibertsitate-zentroa
centro universitario de psicología de la familia

NORTZUK GARA ETA NON GAUDE?

ETXADI Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa

Máximo Agirre 18 bis, 5. sol. 10. dep. 48011 BILBO

Tel.: 94 405 15 49 etxadi@etxadi.org / www.etxadi.org

- Ainhoa Manzano Doktorea. Orientazio eta Hezkuntza Interbentzioan Aditua.
- Juan Luis Martín Doktorea. Osasun Mentalean Aditua.



UPV/EHUko Psikologia Fakultatea

Tel.: 943 01 57 00 / 21

- Enrique Arranz Doktorea. Familiaren Psikologian Katedraduna.
e.arranzfreijo@ehu.es
- Fernando Olabarrieta Doktorea. Familiaren Psikologiako Irakaslea.
fernando.olabarrieta@ehu.es
- Nuria Galende. Psikologoa eta ikerlaria.
nuria-galende@ehu.es



HERRIA / ERAKUNDEA	HITZARTUTAKO PROGRAMA
Elatzeta Ikastetxea	Ikerketa Programa eta Prestakuntza Programa
Lea-Artibai Mankomunitatea	Prebentzio Prog. Eta Orientazio Prog. www.lea-artibai.org (Drogamenpekotasunen Prebentzioa, Gurasoentzako gidak)
Urola-Garaia Mankomunitatea	Prebentzio Programa eta Orientazio Programa
Irungo Udala	Orientazio Programa
"Haurreskolak" Partzuergoa	Orientazio Programa
Bilboko Udala	Prebentzio Programa www.bilbao.net (Familian Hæzi -hasi eta hezi-)
Portugaleteko Udala	Orientazio Programa
Arrasateko Udala	Prebentzio Programa
Bergarako Udala	Prebentzio Programa eta Orientazio Programa
Jesús de Gangoiti Fundazioa	Ikerketa Programa eta Prebentzio Programa
UPV/EHU	Ikerketa Programa
BBVA Fundazioa	Ikerketa Programa

AURKEZPENA

Aurkezpen honetan, Zerbitzu honek gaur egun eskaintzen dituen **PROGRAMEI** buruz **INFORMATZEN** da:

“PSIKOLOGIA ETA FAMILIA” ZERBITZUA

- **Orientazio Programak**
- **Ikerketa Programak**
- **Prestakuntza Programak**
- **Prebentzio Programak**

Nori zuzenduta?

- **Erakunde** publiko eta pribatuei (Eskualdeak, Udalak, Mankomunitateak, Partzuergoak, Fundazioak, etab.).
- **Famili elkarteei** (Guraso Elkarteak, guraso bakarrekoak, dibortziatuak, homoparentalak, anitzak, etab.).
- **Heziketa zentroei.**

Ondorengo beharrezanei erantzuna emateko:

- 0-18 urte bitarteko seme-alabak dituzten **familiei.**
- Gizarte Zerbitzu eta Hezkuntzako **irakasle eta adituei.**

1. ORIENTAZIO PROGRAMAK

- **1. PROGRAMA:** familiei Orientazio Zerbitzua eskaintzen zaie, euren seme-alaben hazkuntzan eta heziketan sortzen zaizkien zalantzei buruz telefonoz, posta elektronikoz edota posta arruntez galdetu ahal izateko.

- ✓ Galdetu denari, erantzun isilpekoa eta bakarkakoa itzuliko zaio, gehienez 5 lanegun epe barruan eta familiak nahiago duen bidetik.

- ✓ Kasuaren jarraipenarekin batera, planteatu den gaiaren inguruko epe labur eta ertainerako hezkuntza-jarraibide eta estrategiak eskaintzen dira.

- ✓ Era berean, familiek galde dezakete, baita ere, euren seme-alaben garapen sozio-emozional, kognitibo edota psikomotorra hobetzeko prebentzio-estrategia edo hezkuntza-jarraibideei buruz.



1. ORIENTAZIO PROGRAMAK

- **2. PROGRAMA:** irakasleei Orientazio Zerbitzua eskaintzen zaie, gelan esku-hartzeko edota familiekin komunikatzeko estrategiak kontsulta ditzaketen (telefonoz, posta elektronikoz edota posta arruntez).
- **3. PROGRAMA:** familia, irakasle eta teknikarientzako Ebaluazio eta Orientazio zuzeneko Zerbitzua, hurrengo espezialitateetan:
 - ✓ Eskola orientazioan.
 - ✓ Ikasketen aukeraketa eta orientazio profesionalean.
 - ✓ Gaitasun altudun umeekin antzemate eta interbentzioan.




Helburua:

- Hurbileko Zerbitzua eta konfidentziala eskaintzea, 0-19 urte bitarteko seme-alaben familieei eta irakasleei hezkuntza prozesua bideratzeko irizpideak emanaz.

2. IKERKETA PROGRAMAK

- Familia-hezkuntza, familia-testuinguruen kalitate, haur eta gazteen garapen psikologiko eta abarrekin lotutako **Ikerketa Proiektuak** diseinatzea eta aurrera eramatea.
- Hezkuntza zentroentzako **ebaluazio psikometrikoak** (Adib.: eskola porrota, adimen gaitasunak, gaitasun emozionalak, ziklo desberdinetan).




Helburuak:

- Erakundeei euren inguruko familietan antzemandako beharrizanei buruzko datuak eskaintzea.
- Interbentzio estrategiak diseinatzea eta antzemandako beharizanen arabera orientatzea.

3. PRESTAKUNTZA PROGRAMAK

- **Gurasoei eta irakasleriari** bideratuak, interesa duten gaietan (hezkuntza, eskola errendimenduaren sustapena, teknologia berrien erabilera, banaketa eta dibortzioa, etab.).
- **Gizarte eta hezkuntza arloko adituei** zuzendutakoak, familia-testuinguruen ebalazioan famili arrisku faktoreak detektatzean eta prebenitzean prestakuntza eskainiz.



Helburua:

- Informazio praktikoa eta jokatzeko-estrategiak erraztea, gai hauei edo proposatutako beste edozein gai berriri buruzko dinamikak eta tailerrak burutuz.

4. PREBENTZIO PROGRAMAK

- **Hezkuntza zentroetan** familia-testuinguruaren ebaluazio prebentiboa (Adib.: zentroak gela bateko familien ebaluazioa eskatuz, normalizazio eta arrisku adierazleak antzeman ahal izateko).
- Zabalkunde publikorako **gidak**.
- Artikuluak **komunikabideetan** (aldizkarietan, egunkarietan, etab.).
- **Ikus-entzunezko programak** (telebista eta irratia).
- **Web guneetarako** edukiak.



Helburua:

- Populazio orokorreko familiei mezu prebentiboak zabaltzea eta famili testuinguruak hobetzeko estrategia praktikoak dibulгатzea.